

## **Bertsozale Elkartearen eta Mikel Laboa Katedraren deialdia (2022) bertsolaritzari buruzko ikerketa lanen eta master amaierako lanen proiektuak sustatzeko**

### **DEIALDIAREN XEDEA**

Bertsolaritzari buruzko ikerketa zientifikoa bultzatzeko xedea dute Bertsozale Elkarteak eta UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak.

Ikertzaile gazteak edo hasiberriak doktore tesiaren atarira arte egingo duen ibilbidean zehar egin beharreko urratsak garrantzitsuak dira. Hain zuzen ere, bide horretan laguntzea eta, unibertsitateko edozein jakintza alorretatik abiatuta, **bertsolaritza ikergai gisa sustatzea** da deialdi honen helburua. Lehenengo urratsen garrantziaz oharturik, hain justu, ikerlan proiektuen kalitatea ebaluatu eta sarituko da deialdi honetan; sinesten dugulako unibertsitate irakasle batek bermaturiko proiektuak kalitate ona duenean ikertzaile hasiberriaren oinarriak sendoak izango direla.

Deialdi honetan master amaierako lanen proiektuak lehenetsiko dira, baina beste ikerketa lan monografiko batzuen proiektuak ere onartuko dira, geroko tesiak bultzatzeko helburuarekin. Nolanahi ere, unibertsitate irakasle doktore baten zuzendaritzak bermatu behar du proiektua.

### **PROZEDURA**

- 2022an **2.500 euroko dirulaguntza bat** esleituko da.
- Dirulaguntza jasotzeko ezinbestekoa da unibertsitate ikasketetan titulu-duna izatea (baldintza hori egiaztatatu behar da dirulaguntza kobratzeko unean).
- UPV/EHUko master ofizialetako ikasleek aurkezturiko master amaierako lanen proiektuak lehenetsiko dira.
- Aditu edota doktorez osaturiko hautaketa batzordeak baloratuko ditu aurkezturiko curriculumak eta ikerketa proiektuak. Baremoak zehaztu ondoren, puntu gehien duenetik gutxienekora doan zerrenda egingo du epaimahaiak. Gainera, puntuazio altuenak lortu eta dirulaguntza eskuratzeari meretzuten hautagaien izenak proposatuko ditu, bai eta horren ordezkoen izenak, uko egiteak edo beste edozein gertaera konpontzeko. Batzordeak nahi duen guztiei edo batzuei elkarriketa pertsonalak egitera dei egin ahal izango die.

- Batzordeak laguntzak eskuratu nahi dituzten eskatzaileen soslaiak edo proiektuak askietsi ezean, 2022an saririk ez ematea delibera dezake.
- Ordainketa 90 eguneko epearen barruan egingo da, erabakia argitaratu ondoren.
- Proiektuaren arabera eginiko ikerketa lana 2023ko azaroaren 18a baino lehen entregatu beharko da eta batzorde zientifiko batek ontzat eman beharko du.
- Saritutako proiektuei dagokien ikerketa lanak gauzatutakoan, Mikel Laboa Katedrak zein Bertsozale Elkarteak ikerketa lan horiek argitaratzeko eskubidea edukiko dute, idazlanaren pasarte bat izan edo idazlan osoa izan.
- Saritutako proiektuak gauzatutakoan Xenpelar Dokumentazio Zentroan artxibatuko dira. Aldiz, lanak argitaratu gabeak diren artean, haiek kontsultatu ahal izateko lan bakoitzaren egilearen baimena beharko da.
- Deialdira proiektu bat aurkeztea aski da, proiektuaren egileak deialdiaren prozedurari dagozkion puntu guztiak onartzen dituela baieztatzeko.

## ESKAERAK

- Eskakerak eta behean zerrendatutako dokumentazio guztia PDF formatuan eta e-postaz bidali behar da ondoko bi helbide elektronikoetara: [pio.perez@ehu.eus](mailto:pio.perez@ehu.eus) eta [ikerkuntza@bertsozale.eus](mailto:ikerkuntza@bertsozale.eus)
- Eskakerak deialdi honekin batera doan eskaera inprimakia betez aurkeztuko dira.
- Eskakerak aurkezteko epea: **2022ko urriaren 18ra arte.**
- Eskajerarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:
  - a) NANaren fotokopia
  - b) Deialdi honekin batera doan eskaera inprimakia
  - c) Eskatzailearen CVa
  - d) Espediente akademikoaren kopia
  - e) Unibertsitate irakasle doktore baten berme-txostena, ikerketa lanaren zuzendari izango dela esanez
  - f) Matrikularen frogagiria, UPV/EHUko master ofizialetan matrikulaturik izanez gero

g) Ikerketa proiektua: ezinbestean agertu behar dira helburuak, esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia (1.500-5.000 hitz)

### **EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

- Proposamenak honako irizpide hauei jarraituz ebaluatuko dira:
  - Proiektuaren helburuak eta interesa
  - Proiektuaren ebaluazio orokorra: esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia
  - Proiektuaren garapen maila
  - Proiektuaren bideragarritasuna
  - Eskatzailearen espedientea: CVa eta espediente akademikoa
  - Euskarazko proiektuak lehenetsiko dira

### **DATAK ETA INFORMAZIOA**

- Eskerak aurkezteko epea: **2022ko urriaren 18ra arte**.
- Hautatuen izenak eta ordezkoen zerrenda argitaratzeko eguna: **2022ko azaroaren 18a**, beranduenez.
- Ordainketa: Ordainketa 90 eguneko epearen barruan egingo da, erabakia argitaratu ondoren.
- Proiektuaren arabera ikerketa lana eginda entregatzeko epea: **2023ko azaroaren 18a**, beranduenez.
- Bertsozale Elkarteko atarian ([www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)) argitaratuko da deialdiari buruzko informazioa zein deialdiaren urratsen berri.
- Deialdiaren inguruko gorabeherei buruzko galderak honako helbide elektronikora zuzenduko dira: [pio.perez@ehu.eus](mailto:pio.perez@ehu.eus)